

Karlismoaren Museoak Liburutegien Nazioarteko Egunerako proposatutako Erronka Dokumentalean parte hartzeko oinarriei jarraikiz, erantzunak asmatu dituzten parte-hartzaileen artean zozketa egin da, eta honako hau suertatu da irabazle:

## Íñigo Arzoz Mendizábal

### Erantzun zuzena

#### ***Zer esanen zeniguke irudi honi buruz? Zer argitalpenetatik atera dute?***

Aniceto Lagarderen krokis batean oinarrituta egindako litografia bat da, "Irunberriren eta inguruko mendien ikuspegia; urriaren 21eko batailaren gertalekua". 1875eko urrian Irunberriko Trinitatearen basilizan izan ziren gertakariak islatzen ditu; Bigarren Karlistaldian izan ziren (1872-1876), eta karlistak gailendu ziren.

*La Ilustración Española y Americana* aldizkariaren 1875eko azaroaren 8ko zenbakiaren lehenbiziko orrian argitaratu zen.

#### ***Zenbakiz markatutako tokiak zein diren esan.***

1. Tabar
2. San Vicente
3. Arripodas
4. Orradreko gainak
5. Irati ibaia
6. Irunberriko hilerria
7. Nabaskozeko errepidea
8. Aizpurgiko arroila
9. San Quiricoren basiliza
10. Nabaskozeko mendilerroa
11. Arbaiungo arroila
12. Zaraitzu ibaia
13. Leireko monasterioko bidea
14. Leireko mendilerroa
15. Trinitatearen basiliza
16. Arbontze
17. Domeñu
18. Irunberri
19. Erronkariko mendiak
20. Agoizko errepidea
21. Zangoza, Oibar eta Iruñeko errepidea

**Zorionak saridunari eta eskerrik asko parte-hartzaile guztiei.**